

EUSKARAREN ERABILERA
SUSTATU ETA NORMALIZATZEKO
UDAL ARAUDIA

Durangoko Udala



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Xedapen orokorrak	7
2. Euskararen Normalizazioa Udal Administrazioan	8
2.1. Administrazio jarduerak	8
2.1.1. Udalaren idazkunak eta errotulazioak	8
2.1.2. Bulegotikako materiala	8
2.1.3. Internet eta sare sozialak	8
2.1.4. Leku-izenak eta bideetako eta zerbitzuetako seinaleak	9
2.1.5. Udal erregistroko agiriak	9
2.1.6. Herritarrekiko harremanak	10
2.1.7. Harreman instituzionalak	11
2.1.8. Udal organoen dokumentazioa eta funtzionamendua	12
2.2. Udal Langileen Hizkuntza-Gaitasuna eta Euskara Plana	13
2.2.1. Udaleko Euskara Plana	13
2.2.2. Hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak	13
2.2.3. Hizkuntza-eskakizunak eta erabilera-irizpideak	13
2.2.4. Udal langileen kontratazioa	14
2.3. Udal hautetsien hizkuntza gaitasuna	14
2.3.1. Udal hautetsien ahozko eta idatzizko euskara gaitasuna	14
3. Euskararen Erabilera Udalerrian	14
3.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana	14
3.1.1. Neurriak eta bitartekoak	14
3.2. Diru-laguntzak eta udaleko aholkularitza zerbitzua	15
3.2.1. Euskara sustatzeko diru-laguntzak	15
3.2.2. Euskara-aholkularitza herriko klub, elkarte eta taldeei	15
3.3. Hizkuntza-irizpideak	15
3.3.1. Hizkuntza-irizpideak gainerako diru-laguntzetan	15
3.3.2. Udalaren eta bere erakunde autonomoen hizkuntza-irizpideak	16
3.3.3. Udal instalazioak eta herri-lurra erabiltzeko baldintzak	16
3.3.4. Kontratazio arloko hizkuntza-irizpideak	16
3.3.4. Genero ikuspegia txertatzea	16
3.4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa	17
3.4.1. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa plan eta proiektuetan	17
3.5. Hizkuntza-eskubideak	17
3.5.1. Hizkuntza-eskubideak bermatzeko udal zerbitzu publikoa	17
4. Xedapen gehigarriak	17
5. Xedapen indargabetzailea	18
6. Azken xedapena	18

Sarrera

Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko, azaroaren 24ko, 10/1982 Oinarrizko Legeak dioenarekin bat, euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, eta erkidegoko herritar guztiek dute hizkuntza ofizial biak jakin eta, ahoz zein idatziz, erabiltzeko eskubidea. Honen haritik, Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokie euskararen erabilera bermatzea eta arautzea, baita beraren ezaguera ziurtatzeko behar diren neurri eta bitartekoak erabakitzea eta arautzea ere.

Bestalde, hizkuntza dela-eta inork bereizkeriarik jasan ez dezan, lege orokorrek Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri-aginteei esleitzen diete, haien eskumenen esparruan, hizkuntza ofizial bien erabilera bermatu eta arautzeko eskumena, jakintza eta normalizazioa bizkortzeko neurriak ezartzeko ahalmena eta hizkuntza eskubideak bermatzeko beharrezko neurri eta erabakiak hartzekoa ere. Zentzu honetan, Durangoko Udalak ahaleginak egingo ditu euskara bertakotzeko, indartzeko eta durangar gizartea batzeko tresna izan dadin.

Durangoko Udalak, udal mailako herri erakunde garrantzitsuena den aldetik, eredugarria izan behar du hizkuntza normalkuntzaren alorrean. Hortaz, Euskararen Udal Araudi honek bi helburu nagusi ezartzen dizkio herri mailako euskararen sustapenari: euskararen ezagutza areagotzen jarraitzea eta, aldi berean, neurriak hartzea euskararen erabilerak ere aurrera egin dezan.

Durangoko Udalaren Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudi honen oinarrian, indarrean dagoen gainerako legeriaz gain, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzea arautzen duen 179/2019 DEKRETUA dago.

Halaber, *Durangoko Udalaren Euskararen Sustatzeko Ekintza Plana 2019-2022* ere aintzat hartzen da, alegia, udal barruko eta udalerri mailako plan estrategikoak jasotzen dituen plana.

Era berean, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legeak jasotzen dituen hainbat irizpide ere txertatu ditugu euskararen araudi honetan.

Ondorioz, indarreko legeria oinarri harturik, Durangoko Udalak, herritarren hizkuntza eskubideak bermatu eta hizkuntza egoera normalizaturantz abiatzeko beharrezko urratsak egin nahi dituela aintzat harturik, *Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Araudia* aurkezten du. Bertan jasotzen dira, udalak, barne jardunbidean, herritarrekiko eta beste instituzio edo erakunde ofizialekiko harremanetan eta gizarte-bizitzan euskararen erabilera suspertzeko eta normalizatzeko bete beharreko arauak.

1. Xedapen Orokorrak

1. artikulua.- Euskara, Euskal Herriko berezko eta jatorrizko hizkuntza eta haren nortasun-ezaugarri nagusia den aldetik, Euskal Herriaren eta, aldi berean, munduko gizon-emakume guztien ondare kulturalaren ukaezinezko atala da. Horregatik, durangar guztien elementu integratzailea izan behar da, eta hala izatea bermatuko du udalak. Hortaz, Durangoko Udalak neurri egokiak hartuko ditu, euskara, Durangoko Udalean eta udalerrian, komunikazio-hizkuntza moduan normaltasunez erabilia izan dadin.

2. artikulua.- Euskara, Euskal Herriko berezko hizkuntza den aldetik, Durangoko udal administrazioaren berezko hizkuntza izango da eta, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak, Durangoko udalerriaren eta Durangoko udal administrazioaren hizkuntza ofizialak dira.

3. artikulua.- Euskararen erabilerari dagokionez, Durangoko Udala, bere erakunde autonomoak eta enpresa publikoak legeriari eta euskararen araudi honetako xedapenei lotuko zaizkie, barne jardunbidean nahiz administratuekiko hartu-emanetan edo udalerriko ekimenetan.

Era berean, hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, batik bat, euskararen erabilerari dagokionez, udal zerbitzuak betetzen dituzten enpresek men egingo diote indarreko lege orokorrek eta araudi honek xedatzen dutenari, udalaren zerbitzua betetzean administrazioarekin nahiz herritarrekin sortzen diren harreman guztietan.

4. artikulua.- Durangoko Udalak euskararen aldeko hizkuntza politika lehenetsi, diseinatu eta garatuko du euskaraz bizi edo jardun nahi duten herritarren hizkuntz eskubide eta aukeraketa errespetatu eta bermatzeko, eta, aldi berean, udalerriko esparru guztietan euskararen berreskurapena eta normalizazioa areagotzeko.

5. artikulua.- Durangoko Udalak eremu bereizi biren arabera antolatu eta gauzatuko du bere hizkuntza politika: udal administrazioa eta udalerria. Udalak eremu bakoitzeko helburu, neurri, erritmo eta baliabiderik egokienak finkatuko ditu, hizkuntz egoera eta beharrianak aztertu ostean.

2. Euskararen Normalizazioa Udal Administrazioan

6. artikulua.- Euskararen erabilera eta normalizazioa arautzen duen indarreko legeriari jarraituz, eta, bereziki, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzional eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuak ezartzen duena oinarri harturik, Durangoko Udalaren euskararen normalizazioak bi helburu nagusi izango ditu: Euskararen eta gaztelaniaren erabilera instituzional eta administratiboak arautzea Durangoko Udalean eta herritarrei hizkuntza-eskubideak bermatzea toki-administrazioekiko harremanetan.

2.1. Administrazio jarduerak

7. artikulua.- 86/1997 Dekretuarekin bat, euskarak Durangoko udal administrazioaren zerbitzu-hizkuntza eta lan-hizkuntza izan behar du. Beraz, administratuei zuzenduriko edo administratuekin lotutako administrazio egintza eta jarduera guztiak euskaraz eskaini eta burutzeko moduan eman behar ditu Durangoko Udalak. Horretarako, beharrezkoak diren baliabide material eta pertsonalak jarriko ditu Udalak.

Udalaren komunikazio guztietan, Internet eta sare sozialetakoak barne, emakumeen presentzia islatuko da eta hizkuntza modu ez-sexistan erabiliko da, betiere, irudi estereotipatuen transmisioa saihesteko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko.

2.1.1. Udalaren idazkunak eta errotulazioak

8. artikulua.- Durangoko Udalak era zuzenean edo zeharka kudeatzen dituen sail, departamentu eta bulegoetako idazkunak eta errotulazioak euskaraz edo ele bitan –euskaraz eta gaztelaniaz- idatziko dira. Euskaraz eta gaztelaniaz idazten direnean, euskarazkoari emango zaio lehentasuna. Idazkunak eta errotulazioak diogunean, honakoez dihardugu:

- a) Bulego eta langetako errotuluak eta bestelako adierazleak.
- b) Udalaren orri, inprimaki eta dokumentu guztien idazpuruak.
- c) Gomazko zigiluak, seiluak eta antzekoak.
- d) Udal langileen jantzietan txertatutako idazkun serigrafiazkoak.
- e) Udalaren ibilgailu, garraio eta makineriako idazkunak.
- f) Formatu digitalean argitaratutakoak.

2.1.2. Bulegotikako materiala

9. artikulua.- Durangoko Udalak egokitu egingo du bulegotikako materiala –hardwarea eta softwarea-, euskaraz ere funtzionatu dezan.

10. artikulua.- Softwareak euskaraz erabiltzeko modukoa izan beharko du. Bereziki saihestuko da lehenik aplikazio osoa gaztelaniaz egitea eta, ondoren, programak euskarara egokitzea.

2.1.3. Internet eta sare sozialak

11. artikulua.- Dokumentuak Interneten herritarrek kontsultatzeko moduan jartzen direnean, euskaraz eta gaztelaniaz jarriko dira, eta bi bertsioak aldi berean argitaratuko dira.

12. artikulua.- Udalaren web edukietarako sarbide-orriak euskaraz egon behar dira.

13. artikulua.- Udalaren web orrialdeen URL helbideek euskarazko hitzak izan behar dituzte.

14. artikulua.- Udalak sare sozialetan jartzen dituen mezuak euskaraz edo ele bitan jarriko dira. Ele bitan jartzen badira, euskarari emango zaio lehentasuna.

2.1.4. Leku-izenak eta bideetako eta zerbitzuetako seinaleak

Leku-izenak

15. artikulua.- Leku-izenak edo toponimoak, hala nola, kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreka izenak, euskaraz idatziko dira, eta halaxe agertuko dira errotulu eta informazio-paneletan.

Kale, parke, eraikin eta holakoetan pertsona-izenak jartzea erabakitzen denean, udalak emakume eta gizonen arteko presentzia parekidea sustatuko du.

Horietan guztietan ager daitezkeen toki izen guztien izen ofizialak udalak berak finkatuko ditu, betiere izenaren jatorrizko hizkuntza eta idazkera-arauak errespetatuz. Alabaina, izen ofizialok ezarri aurretik, udalak irizpena eskatuko dio Euskaltzaindiari, eta Durangoko toponimia ikerketan jasotzen dena jarraituko du.

Halaber, udalerrian egin daitezkeen hirigintza-proiektuen ondorioz, Durangoko Udalak egoitzagune berriak, kaleak, plazak edo antzekoak izendatu behar baditu, Euskaltzaindiaren onomastika batzordearen diktamena eskatuko du izendapena egin baino lehen.

Seinaleak

16. artikulua.- Durangoko Udalaren mende dauden leku-izenen, errepideen, bideen, auzoen, zubien, tunelen, autobus-geltokien bulegoen eta interes publikoko zerbitzuen seinaleak, gutxienez, euskaraz idatziko dira. Ulregarritasun-arazoak sor daitezkeen kasuetan, seinaleak ele bitan idatziko dira eta, betiere, euskarari lehentasuna emanez.

17. artikulua.- Trafiko seinale, bide eta zeharbideen adierazgarriak eta, oro har, udalak jarritako herri-bideko iragarpen guztiak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, betiere ulregarritasuna eragotzi barik eta bide-trafikoari eta bide-segurtasunari buruzko araudiekin bat etorruta. Kasu guztietan euskarari emango zaio lehentasuna.

18. artikulua.- Euskarazko mezua erraz ulertzen denean, euskara hutsez jarri ahalko dira seinaleak eta errotuluak. Esaterako, euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten direnak: “merkatua/mercado”, “autobusa/autobus”, “aparkalekua/aparcamiento”.

Euskaraz eta gaztelaniaz antzera samar idatzi ez arren zabalera handia duten hitzak, edo piktografez baliatuz adierazi daitezkeenak, euskaraz joango dira, esaterako, “isilik”, “ez erre”, “irteera”, “sarrera”, “txakurrik ez”, eta antzekoak.

2.1.5. Udal erregistroko agiriak

19. artikulua.- Azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak agintzen duen legeaz, udaletxera sartzen eta udaletxetik ateratzen diren agiriak jatorriz idatzita dauden hizkuntzan inskribatuko dira udal erregistroan. Agiriak ele bitan idatzita badaude, euskaraz inskribatuko dira.

20. artikulua.- Udal erregistroak egiten dituen ziurtagiriak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Interesdunak eskaria euskaraz egin badu, euskaraz helaraziko zaio ziurtagiria, bestela, ele bitan.

2.1.6. Herritarrekiko harremanak

21. artikulua.- Euskeraren Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Legeak arautzen duenarekin bat, udal administrazioarekiko harremanei dagokienez, Durangoko Udalak honako oinarrizko hizkuntza eskubideak aitortzen dizkie herritarrei:

- a) Udalarekin eta haren menpeko edozein erakunderekin harremanak euskaraz izateko eskubidea, ahoz zein idatziz.
- b) Bai udalaren argitalpenak bai udalak egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan argitara ematen dituen jakinarazpen eta xedapen guztiak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- c) Udalak edo Erakunde Autonomoek antolatzen, kudeatzen edo bultzatzen dituzten ikastaroen %50a, gutxienez, euskaraz izateko eskubidea.

22. artikulua.- Aurreko artikuluan jasotakoa garatze aldera, Durangoko Udalak honako neurriak hartuko ditu herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko:

- a) Zuzeneko zerbitzuetan jarduten duten langileak euskaraz eta gaztelaniaz aritzeko gaitasuna dutela bermatuko du Udalak. Udal langileek lehenengo hitza euskaraz egingo dute, gero herritarrek aukeratutako hizkuntzan jarraituko dute.
- b) Udalak egiten dituen zerbitzu-kontratuetan herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Horretarako, enpresa esleipendunari hizkuntza-araudia betetzea eskatuko zaio, bai ahozko jardunean bai idatzizkoan.
- c) Udalean edo erakunde autonomoetan ikastaroak emango dituzten pertsonak, ikastaroa euskaraz izan edo gaztelaniaz izan, hizkuntza gaitasuna nahikoa izan behar dute.
- d) Udaleko webetan eta sare sozialetan herritarrak kontsultatzeko moduan jartzen diren mezuak eta dokumentuak euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira.
- e) Internet bidez udal izapideak egin behar direnean euskaraz egin ahal izatea ahalbidetuko da.
- f) Udaleko datu-base eta erregistroetan eremu bat egongo da herritarrak aukera izan dezan harremana zein hizkuntzan izan nahi duen zehazteko.
- g) Udalak igorritako informazioa euskararen sustapenarekin lotuta dagoenean, euskara hutsez zabaldu ahalko da. Nolanahi ere, hartzaileek hizkuntza gaitasun nahikoa ez duten kasuetan, informazioa ele bitan bidal daiteke, betiere, euskarari lehentasuna emanaz.
- h) Euskaraz jarduten duten norbanako, erakunde publiko zein pribatu, elkarte, klub eta gainerako entitateei euskara hutsez zuzenduko zaie Durango Udala.
- i) Udalak igorritako mezuetako hartzaileek hizkuntza-tratamendu bereziren bat behar badute, estiloa eta formatua egokituko da kolektibo horren beharrianen arabera.
- j) Durangoko Udalak antolatzen dituen ekitaldietako aurkezpen publikoak, hala nola, martxoak 31ko ekitaldia, San Fausto jaietako pregoia irakurtzea, sari-banaketa ekitaldiak, eta antzekoak, euskaraz edo ele bitan egingo dira. Ele bitan egiten direnean euskarari emango zaio lehentasuna.

23. artikulua.- Euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira pertsona fisiko zein juridikoentzako berri-emate eta agiri guztiak; hala ere, interesdunek euskaraz edo gaztelaniaz jasotzea hautatzen badute, hala egingo da.

24. artikulua.- Euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak izaki EAEko lurralde-eremuan, Durangoko Udaleko administrazioak ontzat hartuko ditu pertsona fisikoengandik eta juridiko pribatuengandik jasotzen dituen euskara edo gaztelania hutsezko berri-emate eta agiri guztiak.

25. artikulua.- Udalak herritarrei bidalitako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz joango dira. Herritarrak eskaria euskaraz egiten duenean euskaraz erantzungo zaio.

26. artikulua.- Udal-inprimakiak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Euskaraz eta gaztelaniaz egiten direnean, euskarari emango zaio lehentasuna.

2.1.7. Harreman instituzionalak

Jatorrizko dokumentuak euskaraz idaztea

27. artikulua.- Euskaraz sortutako dokumentuak euskaraz bidaliko dira Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetara edo euskara ofiziala den lurraldeetara. Euskara hizkuntza ofiziala ez den beste autonomia-erkidego batera bidali behar badira, gaztelaniazko itzulpenarekin bidaliko dira, eta jatorrizko euskarazko dokumentutik itzuli dela ohartaraziko da.

28. artikulua.- Ebazpenak, aktak eta erabakiak euskaraz idazten direnean, haien kopiak edo laburpenak euskaraz bidaliko zaizkio Euskadiko Autonomia Erkidegoko administrazioari, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen Estatuko Administrazioari ere, toki-araubideari buruzko oinarriko legeria betez.

29. artikulua.- Euskarazko administrazio-atal izendaturiko zerbitzuek euskara erabiliko dute administrazio horiekin idatzizko harremanak dituztenean.

30. artikulua.- Euskaraz idatzitako testu edo errekerimendu bati erantzun behar zaionean, euskaraz erantzungo zaio.

Ekitaldi publikoak eta agerraldiak

31. artikulua.- Durangoko Udalak komunikazio instituzionalaren barruan antolaturiko ekitaldi publikoak edo komunikabideen aurreko agerraldiak egin behar dituztenean, euskaraz edo ele bitan egingo dira. Hizkuntza bietan egiten denean, lehentasuna emango zaio euskarari.

2.1.8. Udal organoen dokumentazioa eta funtzionamendua

Dokumentazioa

32. artikulua.- Durangoko Udalaren, bere erakunde autonomoen eta enpresa publikoen organoen deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, erabaki-proposamenak, irizpenak, akordioak, aktak eta gainerako udal-dokumentuak euskara hutsez idatzi ahal izango dira, udalak onartu duen araudian ezarritakoarekin bat. Dokumentuak euskaraz edo gaztelaniaz idazteak toki-entitateko kideren baten eskubideak kaltetzen baditu eta kide horrek legez eta era baliodunean alegatu badezake ez duela ulertzen dokumentuen hizkuntza, beste hizkuntza ofizialean itzulita emango zaizkio.

33. artikulua.- Udalaren barne-dokumentazioa hizkuntza ofizial batean -euskaraz edo gaztelaniaz- sortuko da. Halere, geroago, interesdunei jakinarazpenak egitean, kontuan hartu beharreko hizkuntza irizpideak hartuko dira.

34. artikulua.- Eredua normalizatuak bi bertsiotan eskainiko zaizkie herritarrei: euskaraz edo ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz). Formatu elebidunetan lehentasuna emango zaio euskararen koka-penari.

Funtzionamendua

35. artikulua.- Durangoko Udaleko, bere Erakunde Autonomoetako eta Enpresa Publikoetako bilkuretako kide guztiak euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren, mezuak ulertzeko gai badira, bilkurok euskaraz egin ahal izango dira. Euskaraz egiteko erraztasunik ez dutenek gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute.

36. artikulua.- Durangoko Udalak, bere Erakunde Autonomoek eta Enpresa Publikoek egiten dituzten jendaurreko ahozko aurkezpenak, euskaraz edo ele bitan egingo dira. Aurkezpenean euskarri digitalak erabiltzen badira euskarazko azalpenen osagarri, euskarriok gaztelaniaz egin daitezke.

37. artikulua.- Durangoko Udalaren bilkura publikoetan, hala nola foro eta kontseiluetan, herritarrek euskara zein gaztelania erabili ahaliko dute, eta ezingo zaie eskatu haiek aukeratu ez duten beste hizkuntza batean itzulpenik egiterik edo azalpenik ematerik. Itzulpenik egin behar bada, Udalak egin beharko du.

Itzulpenen arrazionalizazioa

38. artikulua.- Durangoko Udalak itzulpenaren eta interpretazio-lanen erabilera arrazionalizatua egingo du. Udala saiaturiko da euskaraz idatziriko dokumentuak gaztelaniara ez itzultzera baldin eta dokumentu horiek Hizkuntzen Europako erreferentzia-esparru komunaren B2 mailako euskara ulermen gaitasun nahikoa duten toki erakundearen zerbitzura dauden pertsonen edo udalbatzako kideei zuzenduta badaude.

39. artikulua.- Durangoko Udalak irizpideak ezarriko ditu itzulpenak modu arrazionalizatuan egiteko, eta, honela, behar besteko erraztasunak eskainiko ditu dokumentu edo mezuen ulergarritasuna bermatzeko laguntza behar duten kargu publiko eta langileei.

2.2. Udal Langileen Hizkuntza-Gaitasuna eta Euskara Plana

2.2.1. Udaleko Euskara Plana

40. artikulua.- 86/1997 Dekretuari jarraituz, Durangoko Udalak euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu eta gauzatuko du. Modu berean, administrazio atalen sailkapena egingo du eta, erakundearen hizkuntz helburuen arabera, administrazio atal elebidunak eta euskarazkoak izendatuko ditu.

2.2.2. Hizkuntz eskakizunak eta derrigorrezko datak

41. artikulua.- 86/1997 Dekretuak araututakoa betetzeko, Durangoko udal administrazioko lanpostu bakoitzari hizkuntz eskakizuna esleitu zaio eta, hala badagokio derrigortasun-data ere bai, betiere, dekretu horrek eta araudi honek ezarritakoekin bat.

Lanpostuen hizkuntz eskakizunak eta, hala dagokionean, derrigortasun-datak, udalak urteko aurrekontuekin batera eman beharreko lanpostu zerrendako zehaztapenetan ageriko dira.

2.2.3. Hizkuntza-eskakizuna eta erabilera-irizpideak

42. artikulua.- Durangoko Udalak behar bezalako neurriak hartuko ditu udal langileek herritarrei hizkuntza-eskubideak bermatzeko moduko hizkuntza gaitasuna izan dezaten, Euskal Autonomia Erkidego herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuan edo hura ordeztzen duen beste xedapenen batean ezarritakoarekin bat. Horri begira, Durangoko Udalak neurriak hartuko ditu langile publikoek euskara etengabe hobetu dezaten euskalduntze-ikastaroetan eta euskaraz ematen diren ikastaroen bitartez.

43. artikulua.- Durangoko Udaleko langileek beren lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna egiaztatu badute, nahikoa gaitasun aitortuko zaie lanpostuaren berezko funtzioak bi hizkuntza ofizialetan egiteko. Hortaz, euskara lan-hizkuntza eta zerbitzu-hizkuntza gisa erabiliko dute, entitateak ezarri dituen erabilera-irizpideei jarraikiz eta zerbitzuaren beharrak zein diren kontuan hartuta.

44.- artikulua.- Udaleko langileek lanpostuari dagokion derrigorrezko 3HE edo 4HE egiaztatu baldin badute, euskaraz lan egingo dute, ahoz zein idatziz, Durangoko Udalaren euskara planean horretaz ezarrita dagoenarekin bat etorrira.

45.artikulua.- 3HE edo 4HE egiaztatu duten langileek euskaraz egingo dituzte entitatearen prestakuntza-planeko ikastaroak.

46. artikulua.- Hizkuntza derrigortasuna ezarrita ez duten udal langileei edo, derrigortasuna izan arren, hizkuntza gaitasun nahikoa ez dutenei, aukerak eta erraztasunak emango zaizkie euskara ikasi edota trebatzeko.

2.2.4. Udal langileen kontratazioa

47. artikulua.- Udal langileen kontratazio-politikaren bidez, Durangoko Udalak bultzada emango dio erakundeko hizkuntz normalizazio prozesuari. Horrela bada, 86/1997 Dekretuan ezarritako jendaurreko ataletan, gizarte mailako ataletan eta atal orokorretan edozein lanpostu sortzean, kontratu mota edozein dela ere, hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da aldez aurretik.

48. artikulua.- Atal berezietako lanpostuak betetzerakoan, udalak kasuan-kasuan erabakiko du derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ezarri behar den ala ez. Horrela, lanpostuari derrigorrezko hizkuntz eskakizunik ezartzea erabaki ezean, euskara merezimendua izango da hautespen probetan, eta puntuazio osoan 86/1997 Dekretuak ezartzen duen portzentajea izango du, ondoko eran:

1. HE: %5; 2. HE: %10; 3. HE: %15 eta 4. HE: %20

49. artikulua.- Durangoko Udalak, bere Erakunde Autonomoek eta enpresa publikoek aldi baterako langileak kontratatu behar badituzte azterketa, lan-poltsa edo bestelako sistemaren baten bidez,

udaleko lanpostuen zerrendan maila bereko lanpostuei eskatzen zaizkien euskararen ezagutza bera eskatuko zaie aipatutako lanpostu horiek beteko dituztenei.

50. artikulua.- Oposaketa-aldiko proba eta azterketa guztiak euskaraz edo gaztelaniaz egiteko aukera emango zaie hautagai guztiei.

2.3. Udal hautetsien euskara gaitasuna

2.3.1. Udal hautetsien ahozko eta idatzizko euskara gaitasuna

51. artikulua.- Udalak sustatuko du hautetsiek ahozko eta idatzizko gaitasuna edukitzea hizkuntza bietan, horretarako Udalak berak ezartzen dituen baliabideak erabiliz.

3. Euskararen Erabilera Udalerrian

3.1. Euskara Sustatzeko Ekintza Plana · ESEP

3.1.1. Neurriak eta bitartekoak

52. artikulua.- Durangoko Udalak beharrezko neurri eta bitartekoak jarriko ditu euskararen hedapen demografiko, geografiko eta funtzionala bultzatu eta lortzeko udalerrian.

53. artikulua.- Durangoko euskaldunen gehi ia-euskaldunen kopurua, %73, esanguratsua izanik, hainbat esparru lehenetsi behar dira euskararen normalizazioan. Ingurumari horretan, udalak aha-
leginak egingo ditu ondoko helburua lortzeko: eguneroko bizimoduan eta gizarte-zerbitzu orotan euskaraz egiteko aukerak ziurtatzea eta areagotzea adin guztietako herritarrei.

54. artikulua.- Goiko artikuluan zehaztutako helburua modurik sistematizatu eta eraginkorrean lortu ahal izateko, Durangoko Udalak udalerrian euskara berreskuratu eta normalizatzeko plan estrategikoa diseinatu, onartu eta garatuko du, Euskara Sustatzeko Ekintza Planean Durangori dago-
kion ereduaren jarduera-lerroei jarraituz.

55. artikulua.- Durangoko Udalaren udalerrri mailako plan estrategikoak berebiziko garrantzia emango die Euskara Sustatzeko Ekintza Planak euskaldun kopuru handiko udalerrientzat lehenes-
ten dituen gizarteko jardun-esparruei. Hala, Durangoko Udalak, batik bat, honako esparru hauetan gauzatuko du bere hizkuntza-politika: familia transmisioa, euskalduntze-prestakuntza, irakaskun-
tza, administrazioa, lan mundua, aisia, kirola, kulturgintza, hedabideak eta IKTak.

3.2. Diru-laguntzak eta udaleko aholkularitza zerbitzua

3.2.1. Euskara sustatzeko diru-laguntzak

56. artikulua.- Durangoko Udalak, euskara sailaren bitartez, diru-laguntza-deialdiak esleituko ditu euskararen sustapenaren inguruko zenbait alorretan, esaterako: euskara sustatzeko ekimeneta-
rako, euskara darabilten aldizkarietarako, errotuluak eta web orriak euskaraz jartzeko, literatura lehiaketarako eta euskalduntze-alfabetatze bekak banatzeko.

57. artikulua.- Durangoko Udalak, hala deritzonean, diru-laguntza nominatiboak esleituko ditu eus-
kararen sustapenaren inguruan. Diru-laguntza hauek lankidetzeta-hitzarmenaren formulapean egingo dira.

Diru-laguntza-deialdiak zein diru-laguntza nominatiboak Durangoko Udaleko aurrekontuetan jasoko dira, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragarriko.

3.2.2. Euskara-aholkularitza herriko klub, elkarte eta taldeei

58. artikulua.- Durangoko Udalak herriko kultur, kirol, aisialdi eta gainontzeko elkarten euskararen erabilera indartzeko, laguntza eta aholkularitza tekniko eskainiko die udaleko euskara zerbitzuaren bitartez. Esaterako, testu laburrak euskaratzeko eta zuzenketak egiteko, diru-laguntzen inguruko aholkularitza emateko, e.a.

3.3. Hizkuntza-irizpideak

3.3.1. Hizkuntza-irizpideak gainerako diru-laguntzetan

59. artikulua.- Durangoko Udaleko sail ezberdinek deituriko diru-laguntza-deialdien onuradunek, ezinbestez, euskara edo euskara eta gaztelania erabili beharko dute argitaratzen dituzten iragarki, ohar, jakinarazpen eta holakoetan. Betebehar hau jaso egingo da diru-laguntza deialdiak edo/eta lankidetzak-hitzarmenak egiten direnean.

60. artikulua.- Udaleko sail ezberdinek deituriko diru-laguntza deialdietako balorazio-irizpideetan puntu osagarriak esleituko zaizkie euskaraz burutuko diren jardura eta programei, eta dagokion udal saileko teknikaria arduratuko da berauen kudeaketaz.

61. artikulua.- Kirol eta gazteria arloko diru-laguntzetan lehenetsi egingo da entrenatzaileek eta begiraleek euskara jakitea eta erabiltzea euren jardunean.

3.3.2. Udalaren eta bere erakunde autonomoen hizkuntza-irizpideak

62. artikulua.- Durangoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen sail guztiek euskara-irizpidea hartuko dute kontuan dena delako plangintza, egitarau eta ekimenak prestatzerako orduan. Kultura, gazteria, hezkuntza, gizarte ekintza, berdintasuna, immigrazioa eta kirol arloek euskaraz edo ele bitan eskainiko dituzte tailer, ikastaro, hitzaldi eta holakoak. Era berean, ekintza iragartzen direnean argi eta garbi adierazi behar da berau zein hizkuntzatan egingo den.

3.3.3. Udal instalazioak eta herri-lurra erabiltzeko baldintzak

63. artikulua.- Udal instalazioak edo/eta herri-lurra erabiltzeko baimena eskatzen duten instituzio zein enpresa pribatu eta norbanakoek, euskara edo euskara eta gaztelania erabiliko dute jardura iragartzeko orduan eta baita berau burutuko dutenean ere. Hau da, ahozko komunikazioa zein idatzizkoa, sare sozialetakoa barne, euskaraz edo ele bitan egingo dute. Ezinbesteko baldintza hau esleipena egin edo baimena ematerakoan jakinaraziko zaio eskatzaileari. Baimena eman duen udaleko saila arduratuko da hizkuntza-baldintzak betetzen direla ikuskatzeaz.

64. artikulua.- Durangoko Udalak, jabari publikoko hizkuntza-paisaia euskararen erabilera sustatzeko aldera, klausulak txertatuko ditu jabari publikoaren erabilera berezia eta pribatiboa baimentzeko tituluetan, betiere, kontsumitzaileei eta erabiltzaileei idatziz ematen zaien informazioa euskaraz ere egon dadin, esaterako, barraketan, azoketan edo udaleko lurzoru publikoan egiten diren

bestelako jardueretan. Baimena eman duen udaleko saila arduratuko da hizkuntza-baldintzak betetzen direla ikuskatzeaz

65. artikulua.- Udalerriko jabari publikoan egiten diren obra pribatuetako errotulazioa, ezinbestez, bi hizkuntzetan joango da, eta euskarazkoa lehenetsiko da. Piktogramak baliatzen direnean edo euskarazko eta gaztelaniazko formak antzekoak direnean, euskara hutsez joango da errotulazioa. Baimena eman duen udaleko saila arduratuko da hizkuntza-baldintzak betetzen direla ikuskatzeaz.

3.3.4. Kontratazio arloko hizkuntza-irizpideak

66. artikulua.- Durangoko Udalaren, bere erakunde autonomoen eta enpresa publikoen kontratazio-organismoek nahitaez sartuko dituzte administrazio kontratuetaiko karatuletan eta berariazko klausula administratiboen pleguetan kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza-irizpideak, hala nola, obra-kontratueta, herri-lanen emakideta, hornikuntza-kontratueta, aholkularitza eta zerbitzu kontratueta, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratueta eta kontratu mistoeta.

67. artikulua.- Baldintza partikularrak eta baldintza teknikoak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira, salbu grafikoak eta dokumentu teknikoak.

68. artikulua.- Enpresa esleipendunak hizkuntza-araudia bete behar du zerbitzua ematerakoan. Hizkuntza-betekizunak administrazio-baldintza partikularren agirian jasoko dira. Besteak beste, enpresak hizkuntza ofizial bietan jarduteko gaitasuna duten langileak jarri behar ditu lanpostuetan.

69. artikulua.- Hizkuntza-baldintzen betetze mailaren jarraipena egitea kontratazio-organismoari dago-kio, euskara zerbitzuak helarazitako jarraipen-txostenen arabera. Hizkuntza biak erabiltzea kontra-tua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezik, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeak oro har dakartzan ondorio berberak izango ditu.

3.3.5. Genero ikuspegia txertatzea diru-laguntzetan, udal instalazioak erabiltzerakoan eta kontratazio arloan.

70. artikulua.- Durangoko Udalak genero ikuspegia txertatuko du diru-laguntzak emateko deialdi-eta eta udal instalazioak edo herri-lurra erabiltzeko egiten diren eskarietan. Halaber, kontratazio publikoaren esparruan, irizpide sozialak txertatuko ditu emakume eta gizonen berdintasunaren es-parruaren baitan.

3.4. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa

3.4.1. Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa plan eta proiektuetan

71. artikulua.- Udalaren egoera soziolinguistikoa era negatiboan eragin dezaketen udal-eskume-neko planak onartzeko prozeduran hizkuntza-inpaktua ebaluatuko da. Azterketa dagokion udal or-ganoak egingo du eta, hala badagokio, neurri zuzentzaileak proposatuko dira.

72. artikulua.- Udalak ebaluatu beharreko planak dira: Hiri antolamenduko plan orokorrak, plan-gintza orokorra bateragarri egiteko plana, sektorizatze-plana, arau subsidiarioak, plan partzialak, hiri-antolamenduko plan bereziak eta turismo-planak.

73. artikulua.- Udalak ebaluatu beharreko proiektuak dira: Merkataritzagune handiak eraikitze-ko proiektuak eta industria guneak eta teknologia-parkeak eraikitze-koak.

74. artikulua.- Ebaluazioetan honako adierazleak hartuko dira kontuan: aldaketak udalerriko biztanlerian, aldaketak udalerria bisitatzen dutenen kopuruan eta bestelako eraginak egoera soziolinguistikoa.

75. artikulua.- Ebaluaziotik salbuetsiko dira hurrengo kasuak:

1.- Kasu hauetan ez da egin behar hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa:

- a) Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.
- b) Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.
- c) Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuetan.

76. artikulua.- Aurreko apartatuan adierazitako kasuetako plan eta proiektuei onarpena, baimena edo gaikuntza emateko funtsezko espedientean, egoera horren berri jasotzen duen txosten bat erantsi beharko da.

3.5. Hizkuntza-eskubideak

3.5.1. Hizkuntza eskubideak bermatzeko udal zerbitzu publikoa

77. artikulua.- Durango Udalak, euskara sailaren bitartez, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzu publikoa jarriko du martxan. Horretarako, prozedura bat finkatuko du hizkuntza eskubideen urraketari konponbideak bilatu, jarraipena egin eta erantzukizuna duten administrazio eta erakundeen arteko lankidetzaz bideratzeko. Herritarrek egindako kexa, iradokizun edo proposamenei hamabost eguneko epean erantzun die dagokion udal saileko teknikariak.

Aipatutako informazioa euskara batzorde informatiboan eta aholku batzordean aztertuko da eta beharrezkoak diren ekimenak jarriko dira martxan.

4. Xedapen gehigarriak

Lehenengoa.- Udal ebazpen guztiek eta udaleko organo edo sail ezberdinek abian jarriko dituzten egitasmoek araudi honetan jasotako aginduak errespetatu beharko dituzte.

Euskara arloko kargudun politikoak euskararen araudia indarrean jarri dela jakinaraziko die udaleko sail eta zerbitzu guztiei eta, halaber, araudiaren xedapenei buruzko argibideak emango dizkie eta hizkuntza-normalizazioa aintzat hartzearen garrantzia ere helaraziko die.

Bigarrena.- Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Araudi hau indarrean jarri eta bost urteren buruan, udalak, araudia berraztertzeari ekingo dio: emaitzak aztertu eta ebaluatu egingo ditu eta, beharrezkotzat jotz gero, komenigarri diren aldaketak proposatuko ditu.

Dena dela, berrikuspenei lehenago egin liteke, lege orokorretan zein egoera soziolinguistikoa aldaketak gertatuko balira, baita udalerriko euskararen berreskurapen eta normalizazio prozesuarentzat garrantzi handikoa izan litekeen beste edozein ziorerengatik ere.

5. Xedapen indargabetzailea

Lehenengoa.- Indargabetuta geratzen dira araudi honek xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen eta erabaki guztiak.

6. Azken xedapena

Lehenengoa.- Araudi hau indarrean jartzen den unetik bertatik Durangoko Udalak eskumena izango du xedapenok ezarri eta garatze aldera beharrezkoak diren arau, erabaki edo egitarau bereziak agindu eta sustatzeko.